

4.5.2. Herrietako Baliabideak

4.5.2.1 Gizartean eta hezkuntzan Esku Hartzeko Udal Programaren Arduraduna

Programaren arduraduna udaleko Gizarte Zerbitzuetako Departamentuko burua izango da beti.

Programaren arduraduna izango da Kontsortzioko Batzorde Teknikoaren bileretan parte hartuko duena, edo gerentearekin harremanetan jarriko dena, Programa udalerrian garatzeari edo orientatzeari dagokien edozein alderdiri heltzeko.

Arduradunak hurrengo eginkizunak izango ditu:

- Programa udalerrian sustatzea, gidatzea eta haren jarraipena egitea, hori guztia Kontsortzioak definitutako Programa Ereduaren ikuspegitik.
- Kontsortzioak definitutako Programa Eredua udalerraren errealitateari egokitzea.
- Hezitzaile eta GLUko jardunbideak definitzea, arreta eskaintako herritarrak, garatu beharreko proiektuak, lehenetsitako eskuartzea, e. a. kontuan hartuta eta Gizartean eta Hezkuntzan esku hartzeko Programa Ereduak ezarritako ikusmoldeen barruan.
- Programa komunitateko gizarte zerbitzuetan sartzea dinamizatzea (GLUn, hezitzaile eta gizarte langileen arteko harremanak bultzatzea; Departamentu mailan plangintza egitea, ...; informazio, balorazio eta orientazio zerbitzuak, familia eta elkarbizitza zerbitzuak, gizarte prebentzio eta gizarteratze zerbitzuak, sustapen eta lankidetzak sozial zerbitzuak, eta beste batzuk garatzea).
- Koordinazioa eta lankidetzak bultzatzea beste udal departamentu batzuekin (elkarren artean garatutako proiektuak) eta beste zerbitzu sistema batzuetako lehen mailako arreta sareekin (ikastetxeak, anbulatorioak).
- Udal programaren plangintzaren eta garapenaren arduradun diren zinegotzi eta batzordearen partaidetza bultzatzea (alderdi estrategikoak eta programaren garapenerako plangintza aldatzea, ...).
- Departamentuaren ordezkari izatea, Inguru Irekiko Hezkuntza Planak ezarritako sistemen arteko koordinazio foro guztietan, eta beharrezkotzat jotzen denean (hasierako bileretan edo bilera erabakigarrietan, e. a.).
- Programaren plangintza sistemaren ezarpena eta garapena sustatzea, eta Gizartean eta hezkuntzan Esku Hartzeko Udal Programa garatzeko Plana eta alderdi estrategikoak eratzea.
- Hezitzaileekin batera, taldekako eskuartzearen eta eskuartze komunitarioaren plangintza egitea (ohi kanpo, udalerririk handietan).
- Hezitzaile taldearen hautatze eta harrera prozesuan parte hartzea.
- Hezitzaile eta udalaren artean solaskide lanak egitea, xede guztietarako.
- Hezitzaileen integrazioaren, gogobetetzearen, motibazioaren jarraipena egitea.
- Hezitzaileei bitartekoak eta lan egiteko guneak eskaintzea.
- Programaren funtzionamenduari lotutako udal gastuei buruzko proposamen guztiak ikuskatzea.

Jarraian ematen ditugu programaren arduradun postuari dagozkion beste alderdi batzuk; gaur egun eginkizun hori betetzen duen pertsonaren ikuspuntua adierazten dute.

**KOMUNITATEKO GIZARTE ZERBITZUETATIK, ARRISKU EGOERAN DAUDEN ADINGABE ETA GAZTEEI
ZUZENDUTAKO GIZARTEAN ETA HEZKUNTZAN ESKU HARTZEKO PROGRAMA EREDUA**

EZAGUPENAK

1.- Gizartean eta Hezkuntzan esku hartzeko Programa
2.- Gizarte eta komunitateko baliabideak (motak, baldintzak, funtzionamendua,...)
3.- Hezkuntza sistemaren antolakuntza
4.- Plangintza
5.- Udal antolaketa
6.- Gizarte zerbitzuetako plangintzak eta politikak

JARRERAK

1.- Komunikatzeko trebetasuna
2.- Ekimena
3.- Irmotasuna
4.- Enpatia
5.- Analisi kritikoa
6.- Zuhurtasuna
7.- Irmotasuna

Eginkizun korapilatsuago eta zailagoa izan daiteke beste arlo batzuetako profesionalak ohartaraztea gizarteratzean egin dezaketen lanaz; ildo berean, lanean sor daitezkeen arazoak bitartekoen eskasia eta gehiegizko erantzukizuna edukitzea dira; azken hori beste sistema batzuek erantzukizuna ez izatearen eta deribatzearen ondorioz sortzen da.

KOMUNITATEKO GIZARTE ZERBITZUETATIK, ARRISKU EGOERAN DAUDEN ADINGABE ETA GAZTEEI ZUZENDUTAKO GIZARTEAN ETA HEZKUNTZAN ESKU HARTZEKO PROGRAMA EREDUA

Eginkizun atseginagoak dira, berriz, esku hartzea planifikatzeko koordinazioa, hain zuzen, eta "zailtasun egoeretan hobekuntzak gertatzen direnean".

Kaleko hezitzaileen laneguna luzatzea eskatzen da.

4.5.2.2. Hezitzaileari dagokion Gizarte Laneko Unitateko gizarte laguntzailea

GLU bakoitzeko gizarte langileak, Programari dagokionez, dituen eginkizunak adierazi ditugu dagoeneko:

- Arrisku egoeran dauden adingabe eta gazteekin banakoarekin esku hartzeko plangintza egitea (programazioa eta ebaluaketa)
- Taldeka esku hartzeko eta komunitatean esku hartzeko plangintza egitea (desiragarria)
- GLUri esleitutako lurraldean esku hartzeko plangintza egitea (desiragarria)

Gizarte langileak komunitateko gizarte zerbitzuei lotutako bizikidetza unitate bakoitzarekin esku hartzea zentralizatzen du. Hortaz, epe luzera, funtsezko erreferentzia irudia da zaintzaile nagusientzat eta, era berean, profesional jakin batek esku hartzea egokia den ala ez erabakitzen duena da.

Gizarte langileak egiten duen lanak hezkuntza izaera eta izaera komunitarioa ere badauka; hala ere, funtsezkoa da behean aipatzen diren puntuak betetzea, gizarte langileek, komunitateko gizarte zerbitzuen barruan, gizarte lanaren alderdi horiek gara ditzaten, eta lurraldean dauden esku hartzeko kasu guztiak planifika ditzaten (GLU), Gizartekintzak eratutako Gipuzkoako Gizarte Zerbitzuen plan estrategikoak aurreikusitakoaren arabera:

- komunitateko gizarte zerbitzuen diseinua burutzea,
- bertako gizarte langileen kopurua handitzea,
- eta gizarte langileei lan burokratikoak kentzeko sistemak aurkitzea (administrari laguntzailearen irudia sustatuz, adibidez).

4.5.2.3. Kaleko Hezitzailea

Kaleko hezitzaile lanpostuaren monografia aurkeztu aurretik, bertan egiten den lanaren izaerari buruzko hausnarketa batzuk azaltzea beharrezkoa dela uste dugu. Sakondu beharko liratekeen alderdietako bat baita hori, Gizartean eta Hezkuntzan esku hartzeko Programa Ereduan sartu nahi bada.

Kaleko hezitzailearen irudiari dagokionez, garrantzitsua da hurrengo puntuak aipatzea:

- ez dugu adingabe eta gazteen hezitzaile gisa definitu, litekeena baita beste talde batzuekin ere lan egitea, komunitateko gizarte zerbitzuen barruan
- era berean, ez dugu inguru irekiko hezitzaile gisa definitu, inguru irekian, komunitatearen barruan, beste hezitzaile irudi batzuk badira eta.

Ondokoak dira kaleko hezitzailearen irudi profesionalaren ezaugarriak:

- baztertze edota desabantaila egoeran (arrisku egoeran) dauden pertsona eta taldeekin esku hartzen du
- haien eskuartzea kalean izaten da, funtsean.

**KOMUNITATEKO GIZARTE ZERBITZUETATIK, ARRISKU EGOERAN DAUDEN ADINGABE ETA GAZTEEI
ZUZENDUTAKO GIZARTEAN ETA HEZKUNTZAN ESKU HARTZEKO PROGRAMA EREDUA**

Hau da, "marjinazioan espezializatutako hezitzailea" da, funtsean kalean lan egiten duena, komunitateko gizarte zerbitzuetatik.

Kaleko hezitzailearen lana adingabe eta gazteen marjinazioan espezializatutako heziketa tradizionalaren barruan sar daiteke.

Edozein hezkuntzako harremanek, baina, bereziki pedagogia terapeutikoa gisa definitu izan den harremanak (arrisku altu eta ertaineko egoeran dauden pertsona eta taldeekin egiten dena) denbora tarte luzea eskatzen du harremanetan hasteko, pertsonak bizi izan dituen barneko eta kanpoko gatazkei irtenbidea emateko, eta harremanari amaiera emateko.

Esku hartzen hasteko, harremanari ekingo zaio eta hezitzailearen berezko eskaintzarekin abiatuko da. Eskaintza hori pixkanaka desagertuko da, normalizatutako baliabideetan txertatu ahala, eta harremanaren amaierara iritsi arte.

Hezitzaile eta adingabe edo gaztearen artean sortzen den harremana hezitzailearen oinarritzko lan tresna da.

Ekintzak ez dira nahikoak izaten, eta, batzuetan, hezitzailearentzat "oztopo" bihur daitezke.

Adingabe eta gazteekin kultura, astialdi eta antzeko arloetatik egindako eskuartzea bideraturik egoten da "jarduerak eskaintzera", ludotekarekin hasi eta internetarako sarbidean bukatuz; horrela, adingabe edo gazteak bere jardura egiten du, baina, askotan, beste batzuekiko elkarreragina izan gabe. Joera hori arrazoitzeko, adingabe eta gazteen askatasuna errespetatzea, tartean ez sartzea, autonomia garatzea, e. a. aipatu izan dira. Gure ikuspuntutik, ordea, kasu askotan hezkuntzaren erantzukizuna alde batera uztea ekartzen du horrek, gurasoengandik etortzen denean kritikatu izaten duguna, eta adingabeak eta gazteak "jardunen batean" mantentzeko beharrari erantzuten dio.

Adingabe edo gazteekin egiten diren jarduerak hezkuntzako helburuen arabekoak izan behar dute, eta hezitzaile eta ikasleen arteko harremana bideratzeko balio behar dute. Jardueretan parte hartzea ez da helburua berez (hori argi eta garbi geratu da Programaren oinarria den gizarteratze kontzeptua adieraztean).

Bestalde, inguruneetan parte hartzeak ez du ziurtatzen pertsonak bizi dituen barneko zein kanpoko gatazkak konponduko direnik. Izan ere, inguruneetan parte hartzea bitartekoa ere bada-eta, inguruneek hezkuntzako izaera dutenean; eta, horrez gain, gatazkak adierazteko gunea soilik ere izan daiteke. Demagun hezitzaileak egiten duen bakarra arrisku egoeran dauden adingabe edo gazteak baliabideetara deribatzea dela, eta demagun baliabide horiek hezkuntza erreferentziarik gabeko jarduerak bakarrik eskaintzen dituztela: horra hor gatazka, zalantzarik gabe.

Arrisku altu eta ertaineko egoeran dauden eta zenbaitetan jadanik moldagabezia portaera garatu duten nerabe eta gazteekin esku hartzen denean, esku hartze hori bi urtetan gutxienez mantentzea zentzuzkoa dela uste dugu, eta eskuartze horietako kopuru handi bat lau urtetara ere luza daitezke (kontuan izan, komunitateko gizarte zerbitzuetatik pertsona askorekin esku hartzea, errealitatean, "belaunaldi" bat baino luzeagoa izaten dela).

**KOMUNITATEKO GIZARTE ZERBITZUETATIK, ARRISKU EGOERAN DAUDEN ADINGABE ETA GAZTEEI
ZUZENDUTAKO GIZARTEAN ETA HEZKUNTZAN ESKU HARTZEKO PROGRAMA EREDUA**

Nerabegarotik aurrera, adingabe edo gaztearekin bere historiaren irakurketa, itxuratze pertsonala, e. a. egin daiteke. Une horretan adingabe edo gaztearekin banan-banako harremana areagotu ahal izango da, eta beharrezkoa izango da.

Hezitzaile bakoitzeko ratioa, egun erdiz, banakoaren 6/8 proiektukoa denez, udalerri bakoitzean banakako arreta eskainitako adingabe edo gazte kopurua ez da oso handia izango.

Udalerri bakoitzean bi edo hiru hezitzaile egongo balira, lanegun osoz, gehienez 48 adingabe edo gazteri, aldi berean, arreta eskaintzeko moduan egon litezke (48 proiektu horietatik kopuru handi bat gutxienez lau urtez irekita mantenduko liratekeela jakinda).

Eskuartzearen kostua, beraz, altua da; baina, babes sareko egoitza txiki edo egoitza funtzionalekin alderatuz gero, azken horiek askoz kostu altuagoa dutela ikus daiteke.

Horrek guztiak eskatzen digu banakoarekin esku hartzen denean, parte hartuko duten adingabe edo gazteak egokiro hautatzea.

Kaleko hezitzaileek ez diote, gehienetan, hainbesteko dedikaziorik eskainiko nerabegarora iritsi ez direnekin esku hartzeari, banakako hezkuntzako proiektuen barruan; banakoarekin esku hartzeak dituen helburuak lortzeko talde proiektuetara joko dute, edota familiarekin lan egitera, edo baliabide komunitarioekin koordinatzea.

Horrek ez du esan nahi banakako hezkuntzako harremanik sortu behar ez denik, segur aski gutxiagoko lanaldia eskatuko dela baizik.

Esku hartzeari bizitzaren lehen urteetan ekin beharko litzaioke, familiari zuzendutako arreta goiztiarreko programen bitartez eta, bertan, kaleko hezitzaileez gain, beste zenbait profesionalen parte hartuko lukete (beharbada familia hezitzaileek, familia taldeei zuzendutako familia proiektuen bitartez).

Hezitzaileek beren ardurapean duten adingabe edo gazteen kopurua orotara zehazteko, kontuan hartu behar da taldeekin esku hartzeaz gain, arrisku baxuko egoeretan dauden eta banakako hezkuntzako proiektua behar ez duten adingabe edo gazteekin banaka ere jarduten dutela.

Zenbait adingabe edo gazterekin ez da beharrezkoa izango banakako hezkuntzako proiektuetan jardutea; bai, ordea, talde proiektuen barruan, esku hartzeko banan-banako helburuak programatzea eta ebaluatzea.

Hezitzaileak adingabe edo gaztearekin izango dituen unean uneko harremanak mantentzeko, kasu askotan, banakako hezkuntzako proiektua itxi denean, hezitzailea garrantzizko erreferentziazko irudi bihurtu bada adingabe edo gaztearentzat.

Bestalde, garrantzitsua da arrisku egoeran dauden adingabe edo gazteek erreferentziazko irudi hezitzaile bakarra izatea (aipatutako ezaugarriak dituen irudia). Adingabe, gazte eta familiekin erreferentziazko irudi asko izatea saihestu behar da, kostu ahala kostu.

Horrek esan nahi du, banakako hezkuntzako proiektuak ez duela beti eskatuko kaleko hezitzaileek era trinkoan esku hartzea. Adingabe edo gazteak jadanik erreferentziazko irudi garrantzitsua badauka ("inguru irekian hezitzaile gehiago daude"), kaleko hezitzaileak ez du horren lekua hartuko.

**KOMUNITATEKO GIZARTE ZERBITZUETATIK, ARRISKU EGOERAN DAUDEN ADINGABE ETA GAZTEEI
ZUZENDUTAKO GIZARTEAN ETA HEZKUNTZAN ESKU HARTZEKO PROGRAMA EREDUA**

Alderdi horrek eragina izan lezake, era berean, hezitzaile bakoitzak eduki lezakeen banakako hezkuntzako proiektuen ratioan.

Hezitzaile bakoitzeko banakako hezkuntzako proiektuen ratioa zenbatekoa izango den zehaztu behar da epe laburrean, orain arte aipatu ditugun hurrengo alderdiak aintzat hartuta (eta analisia sor litezkeen beste batzuk ere bai):

- Ratio ezberdinak ezarri ahal izatea, arrisku egoera ertainean, altuan edo moldagabezia egoeran dauden adingabe edo gazteentzat.
- Hezitzaileek gutxiagoko dedikazioa eskaini ahal izatea banakako hezkuntzako eskuartzeari, 14 urtekoak baino gazteagoak direnekin.
- Adingabe edo gaztearentzat, beste bat izatea erreferentziazko hezkuntza irudia.

Jarraian, kaleko hezitzaile lanpostuaren monografia ematen dugu, programan parte hartzen duten kaleko hezitzaileek beraiek lanpostuari buruz duten ikuspuntuaren arabera –helburuak eta eginkizunak kanpo geratzen dira.

HELBURU NAGUSIA

Normalizatutako eta egokitutako –adingabe/gazteak– inguruneetan txertatzea (baliabideak, sareak, familia esparruak, kalea, kidekoen taldea)

HELBURU ESPEZIFIKOAK
Gizarteratzeko ezagupenak eta gaitasunak eskuratzea, eta oinarrizko jarrera eta interesak garatzea, kaleko hezitzaileen berezko eskaintzaren ingurunean (adingabe/gazteak)
Normalizatutako eta egokitutako –adingabe/gazteak– inguruneetan parte hartzea (baliabideak, sareak, familia esparruak, kalea, kidekoen taldea)
Ezagupenak, gaitasunak, jarrerak eta interes orokor eta espezifikoak transferitzea, orokortzea eta garatzea, normalizatutako eta egokitutako hainbat inguruneetan –adingabe/gazteak–
Ingurune eta adingabe/gazteen arteko harremanak hobetzea
Komunitatearen gaitasuna garatzea, adingabe eta gazteek bizi izandako arrisku egoerei erantzuteko (baliabideak eta komunitatea orokorrean)
Familiak eskola eta komunitatearekin dituen harremanak hobetzea (familiak-baliabideak-komunitatea)

**KOMUNITATEKO GIZARTE ZERBITZUETATIK, ARRISKU EGOERAN DAUDEN ADINGABE ETA GAZTEEI
ZUZENDUTAKO GIZARTEAN ETA HEZKUNTZAN ESKU HARTZEKO PROGRAMA EREDUA**

EGINKIZUNAK ¹³	E	A	N
EKINTZA			
Banakoarentzako proiektuak garatzea			
Behaketa inguru irekian		X	
Adingabe eta gazteekin informazio/ orientazio/negoiazio elkarriketak egitea		X	
Banakako hezkuntzako harremana, inguru irekian		X	
Baliabideekin bitartekotza elkarriketak egitea		X	
Familiarekin elkarriketak egitea (informazioa / orientazioa, negoziazioa, bitartekotza, jarraipena)		X	
Adingabe eta gazteei kudeaketetan laguntzea			X
Adingabe eta gazteekin jarraipen elkarriketak egitea		X	
Taldeko proiektuen garapena (berezko eskaintza ¹⁴)		X	
Igarotzeko proiektuen garapena		X	
Sentsibilizatze proiektuen garapena		X	
PLANGINTZA			
Azterketak egitea (premien/baliabideen ebaluaketa)		X	
Proiektuak (Banakakoak, taldekoak eta komunitarioak) eta ekintzak diseinatzea eta ebaluatzea		X	
Gizartean eta Hezkuntzan esku hartzeko Udal Programaren ebaluaketak egitea		X	
Txostenak egitea (Banakakoak)		X	
KOORDINAZIOA			
Kasu bakoitzaren ardura duen GLU bakoitzeko gizarte langilearekin koordinatzea, Banakako hezkuntzako proiektuak diseinatzeko eta ebaluatzeko		X	
Hezkuntzako lankidearekin koordinatzea, esku hartzea eskualdatzeko, edo bien arreta eskatzen duen eskuartearen kasuetan		X	
Beste hezitzaile talde batzuekin koordinatzea, elkarren arteko proiektuak eta jarduerak egiteko		X	
Familia hezitzaile edota terapeuta, edota etxeko laguntzaileekin koordinatzea, eta esku hartzeak hala behar duenean, gizarte langilearekin ere bai		X	
Lanbide hastapeneko zentroekin, lan munduratzeko teknikarekin koordinatzea		X	
Babes eta erreforma zentroekin, adingabeen epaitegiekin, larrialdietarako etxebizitzekin koordinatzea, esku hartzeak hala behar duenean			X
Gizarte-ekintza Departamentuarekin koordinatzea, Gizartean eta Hezkuntzan esku hartzeko Udal Programaren garatzeko planak, ebaluaketen sintesiak eta azterketak egiteko (Kontsortzioaren programan parte hartzeko eskaerak)		X	
Udal programaren arduradunarekin koordinatzea, erakundeekiko harremanetarako, udal programaren garapen planaren jarraipenerako, e. a.		X	
Gizarte ongizate, kultura, gazteria batzordeei eta dagozkien zinegotziei informazioa ematea			X
Beste udal departamentu batzuekin koordinatzea (bereziki Kultura edo/eta Gazteria departamentuekin), azterketak egiteko, lankidetzan egindako proiektu eta jarduerak diseinatzeko eta ebaluatzeko		X	
Eskola sistemako profesionalekin koordinatzea (tutoreak, aholkulariak, gizarte egokitzapenerako teknikariak, ...), eta, behar bada, osasun sistemarekin, banakako edo taldeko eskuarteak diseinatzeko eta ebaluatzeko		X	
Maila lokaleko zerbitzu sistemekin –hezkuntza, kultura, osasuna- eta bestelako baliabide komunitarioekin (proiektu komunitarioetan) koordinatzea		X	
Kontsortzioko koordinatzailearekin bilerak egitea		X	
Zerbitzua eskaintzen duen erakundearekin koordinatzea (jarraipena, lan eta kudeaketako laguntza)		X	
PRESTAKUNTZA			
Barneko eta kanpoko prestakuntza		X	

¹³ E= eguneroko eginkizuna; A= aldizkakotasuna duena; N=noizean behingoa.

¹⁴ Beste atal batean azaldu dugu, dagoeneko, hezitzaileek proiektu mota bakoitzeko egiten dituzten jardueren zerrenda. Taldeko proiektu eta proiektu komunitarioen kasuan, eginkizunak dira jarduerak diseinatzea, garatzea eta ebaluatzea.

**KOMUNITATEKO GIZARTE ZERBITZUETATIK, ARRISKU EGOERAN DAUDEN ADINGABE ETA GAZTEEI
ZUZENDUTAKO GIZARTEAN ETA HEZKUNTZAN ESKU HARTZEKO PROGRAMA EREDUA**

EZAGUPENAK

Agindua: Gizartean eta Hezkuntzan esku hartzeko Programa eredia, eta Gipuzkoako eta udalerrietako inguru irekiko hezkuntzako programaren garapen planak.
Herri administrazioen politika eta planak, haur eta gazteei eta gizarte zerbitzuei zuzenduak
Berariazko legeria
Gizarte baztertzea, marjinazioa
Gizarte moldagabeziaren prozesua, psikologia diferentziala
Haurrak eta gazteak
Udalerriko gazteen ezaugarriak
Psikologia ebolutiboa
Dauden baliabideak ezagutzea (hezkuntza, kultura, osasun, gizarte zerbitzuaren sistemari dagozkionak, beste baliabide komunitario batzuk), orokorrean eta udalerrikoak
Gizarte Heziketa eta Gizarte Pedagogia
Hezkuntzako harremana
Talde dinamika
Komunikazioaren teoria
Trebetasun sozialak
Deontologia profesionala
Arrisku egoeran dauden adingabe, gazte eta familiekin esku hartzea
Kaleko heziketa
Komunitateko eskuartzea
Familian esku hartzea (oinarrizko ezagupenak)
Astialdiko heziketa
Jarduerak (ikus zerrenda eranskinean, oinarritzko maila)
Gizarte Ikerkuntza
Behaketa eta elkarrizketa teknikak
Baliabideen analisia
Plangintza (programatzea eta ebaluatzea)
Informatika, oinarritzko mailan
Gizarte zerbitzuetako antolakuntza eta funtzionamendua, komunitateko gizarte zerbitzuetakoak bereziki
Udal antolakuntza eta funtzionamendua, eta udaletako gizarte zerbitzuen departamentuetakoak
Beste profesional batzuen betebeharrak (gizarte langilea, drogamenpekotasuna prebenitzeko teknikaria, ikastetxeko tutorea, aholkularia, gizarte egokitzapenerako teknikaria, ...).

GAITASUNAK

Asertibitatea
Enpatia
Negoiaziorako eta bitartekotzarako trebetasunak
Sorkuntza
Harreman-komunikaziorako trebetasunak
Era aktiboan entzutea
Hurbiltasuna/ urruntasuna maneiatzea
Behaketa
Antolakuntza
Jende aurrean hitz egitea

**KOMUNITATEKO GIZARTE ZERBITZUETATIK, ARRISKU EGOERAN DAUDEN ADINGABE ETA GAZTEEI
ZUZENDUTAKO GIZARTEAN ETA HEZKUNTZAN ESKU HARTZEKO PROGRAMA EREDUA**

JARRERAK

Irekitasuna, aurreiritzirik eza, mundu ezberdinetara moldatzeko gaitasuna (umeak, nerabeak, gazteak, helduak, erakundeak, administrazioak, ...)
Mentalitate irekia, baldintzarik gabeko onarpena
Onarpena eta errespetua
Frustrazioaren aurrean erresistentzia izatea
Irmotasuna, jasankortasuna
Komunikazioan argitasuna eta kongruentzia edukitzea
Talde lana egiteko gaitasuna
Erantzukizunetan parte hartzea
Erabakitzailea izatea eta erantzukizunak bereganatzea
Ekimena
Dinamismoa, mobilizatzeko eta dinamizatzeko gaitasuna izatea
Zuhurtasuna
Prest egotea
Antolakuntza
Adingabe eta gazteen errealitatetik hurbil egotea
Lanean inplikatzeko
Gizartekoia, kanporakoia izatea
Analisiak egiteko gaitasuna
Buruzagitza
Giro ezberdinetan sartzeko eta haietara moldatzeko trebetasuna
Haur eta gazteekin harremanak izateko erraztasuna
Alaitasuna
Baikortasuna eta errealismoa
Tolerantzia
Gatazkaren aurrean jarrera baikorra izatea
Adingabe eta gazteekiko eta marjinazio arazoan aurrean sentsibiltatea izatea
Malgutasuna
Ardura
Egonkortasuna
Emozioen kontrola
Bere lanaz eta errealitate sozialaz zentzu kritikoa izatea

PRESTAKUNTZA

- Gizarte Heziketan diplomatua izatea (lehentasuna emango zaio).
- Gizarte Lanean, Irakasle eskolan diplomatua, eta Pedagogian,
- Psikopedagogian eta Psikologian lizentziatua izatea.
- Gizarte eta Hezkuntza arloetan ezagupen espezifikokoak.
- Euskarako 3. HE edo antzekoa (EGA).
- Gidatzeko baimena B1 eta autoa izatea.

KOMUNITATEKO GIZARTE ZERBITZUETATIK, ARRISKU EGOERAN DAUDEN ADINGABE ETA GAZTEEI ZUZENDUTAKO GIZARTEAN ETA HEZKUNTZAN ESKU HARTZEKO PROGRAMA EREDUA
ESKARMENTUA

- Adingabe eta gazteekin inguru irekian egindako lana.
- Arrisku egoeran dauden adingabe eta gazteekin esperientzia izatea.
- Astialdiko monitorea eta zuzendaria, adingabe eta gazteekin.
- Haurrei eta gazteei orokorrean zuzendutako programen, proiektuen eta hornikuntzen diseinua eta garapena.
- Familia hezitzailea eta bitartekaria
- Animatzaile soziokulturala
- Komunitatearen dinamizazioa eta sustapena
- Talde lanean eskarmentua izatea
- Boluntario gisa izandako esperientzia ere baloratuko da

LOTUTAKO POSTUAK

- Haur eta gazteei zuzendutako programen diseinu eta kudeaketa.
- Familia heziketa.
- Komunitatearen dinamizazioa eta sustapena.

LANPOSTUAREN EGINKIZUNAK BETETZEAN IZANGO DITUEN HARREMANAK

- Programaren barruan:

NOREKIN
ZERTARAKO

1.- Gizarte langileak (GLU)	Banakako, taldekako eta komunitateko proiektuen plangintza
2.- Departamentuko programaren edo taldeko arduraduna	Programaren plangintza eta jarraipena Talde proiektuak eta proiektu komunitarioak planifikatzea (udalerrri handietan)
3.- Kontsortzioko koordinatzailea	Jarraipena, aholkularitza eta informazioa
4.- Hezitzaile taldea	Kasuak trukatzeko, lankidetzan egin beharreko proiektuak
5.- Beste hezitzaile talde batzuk	Denen arteko jarduerak programatzea
6.- Politikariak	Informazioa, inplikatzeko
7.- Zerbitzua eskaintzen duen erakundea	Jarraipena, hezitzailearen lana bermatzea, eta kudeaketa

- Programatik kanpo:

NOREKIN
ZERTARAKO

1.- Udal departamentuak	Informazioa, inplikatzeko, moldatzea
2.- Ikastetxeak	Arrisku egoerak hautematea, deribatzea eta proiektuak lankidetzan planifikatzea
3.- Baliabide komunitarioak	Informazioa, inplikatzeko, egokitzea
4.- Familia hezitzailea, familia terapeuta	Koordinazioa
5.- Lan munduratzeko teknikariak	Koordinazioa
6.-Adingabeen Tutoretzako Auzitegia	Koordinazioa

**KOMUNITATEKO GIZARTE ZERBITZUETATIK, ARRISKU EGOERAN DAUDEN ADINGABE ETA GAZTEEI
ZUZENDUTAKO GIZARTEAN ETA HEZKUNTZAN ESKU HARTZEKO PROGRAMA EREDUA**

ERANTZUKIZUNA

ERABAKI MOTA

- Esku hartzeko lehentasunak jartzea
- Gatazka egoeretan esku hartzea
- Zeri buruzko informazioa eman eta nori

AKATSEN ONDORIOAK

- Proposatutako helburuak ez lortzea
- Itxaropen faltsuak sortzea
- Talde harremanak zapuztea
- Programa desagertzea
- Adingabe eta gazteekin geroago izan daitezkeen harremanak oztopatzea
- Atzerapena, proiektuak abiaraztean
- Abandonu sentimenduak sortzea
- Pertsonari etiketa jartzea

LANA ZEIN BALDINTZATAN EGITEN DEN

MATERIALEAK ETA TRESNAK

- Hornitutako bulegoa
- Udal lokalak
- Bulegoko materiala
- Ordenagailua, telefonoa, faxa
- Bibliografia
- Jolasetarako, akanpadarako, kirola egiteko, tailerretarako materiala
- Fitxak, euskarri dokumentalak

LAN GIROAREN BALDINTZAK

Lan egiteko tokiaren baldintzak oso aldakorrak dira.

Gehienetan hezitzaileek bulego zabala, hornitua, kanpora ematen duena eta sarbide errazekoa izaten dute. Hala ere, batzuetan hezetasuna egon daiteke, barrura ematen duen bulegoa izan daiteke, eta kalean bertan sarbiderik ez duena.

ARRISKUAK

Arrisku fisikoak

Jardueretan lesionatzea
Istripuak lekualdaketetan
Erasoek eragindako lesioak

Arrisku psikikoak

Estresa
Larritasun sentimendua, angustia
Depresioa
Burnout

**KOMUNITATEKO GIZARTE ZERBITZUETATIK, ARRISKU EGOERAN DAUDEN ADINGABE ETA GAZTEEI
ZUZENDUTAKO GIZARTEAN ETA HEZKUNTZAN ESKU HARTZEKO PROGRAMA EREDUA**

TENTU HANDIAGOZ BETETZEKO EGINKIZUNAK

- Zer informazio eman eta noiz eman erabakitzea
- Adingabe eta gazteek beren egoera hitzez adieraz dezaten lortzea
- Adingabe eta gazteekin hasierako kontaktua egitea
- Gatazka egoeretan esku hartzea

EGINKIZUNA BETETZEAN SOR DAITEZKEEN ARAZOAK

- Programa nahiko formalizatuta ez egotea, argitasun falta
- Gehiegizko ordu kopuruen ondoren, konpentsazio txarrak motibazio eza sortzea, lan baldintzak (lanegun erdia)
- Norberaren mugak
- Hezitzaileen eta horiekin koordinatu beharreko profesionalen arteko ordutegiak bateraezinak izatea
- Egindako lanari "antzemateko" zailtasunak, lorpenak epe luzera izatea.

ATSEGINAGOAK DIREN EGINKIZUNAK

- Adingabe eta gazteekiko harreman zuzena: onartuak izateak poza ematen baitu
- Hezitzaileen talde bilerak: zailtasunak, arrakastak eta huts egiteak partekatzeko aukera ematen baitute
- Jarduerak: harremanak finkatu eta gozatzeko aukera ematen baitute
- Hezitzaileen jardunaldiak: Hezitzaileen artean esperientzia trukatzeko aukera ematen baitute
- Koordinazio mahaiak: ikuspegi orokorra izateko aukera ematen baitute

ESKAINITAKO LAGUNTZAK

- Prestakuntza eta diru laguntza
- Koordinatzaileak ikuskatzea
- Bitarteko fisikoak, azpiegiturak, materialak ...
- Lana ikuskatzea

ESKATUTAKO LAGUNTZAK

- Prestakuntza jarraitua egiteko fondoa

LANPOSTUAREN BILAKAERA

- Banakoaren premiei erantzunez, proiektu komunitarioetarantz polarizatzeko joera
- Gero eta Banakako kasu gehiago egotea Gizarte Zerbitzuetako Departamentutik bideratutakoak
- Epe luzera, adin eta eginkizunen arabera egindako taldeak zabaltzea.

Hezitzaileen zenbait ekarpen, talde lanaren inguruan

- Talde lana egiteak daukan zailtasuna kontuan hartzea beharrezkoa da, hurrengo alderdiak ere beharrezkoak diren era berean:
- Lanari buruz hitz egiteko harreman estua mantentzea, lankidearen ikuspegia, izaera eta jarduteko modua hobeto uler dadin.
- Besteek, pertsonaren edo profesionalaren ikuspegitik, beren banakotasuna adierazteko eskubidea errespetatzea.
- Haserrealdi, gaizki ulertze, kontrako jarrerak, e. a. bideratzea, besteengan konfiantza jarritz, eta inkomunikazio egoerak iraunkorrak izan daitezen utzi gabe.
- Gure lankideen alderdi positibo guztiak onartzea (jarduerak, lorpenak, ...), eta, hortik, gure lana hobetzeko balio duten elementuak ateratzea.
- Lanean ematen dugun denbora aldez aurreko konpromisoek, egunero sor daitezkeen larrialdiek, eta lankideen arteko astialdi eta harremanek osatzen dutela onartzea. Era horretan, eguneroko lan erritmoa errazago jarraitu ahal izango da.
- Lanaren barruan, astia eta guneak hartzea norbera eta taldea zaintzeko, lan tresna garrantzitsuena norbera dela kontuan hartuta.

Interesgarria litzateke ikuskatzaile profesionalak egotea, taldeari lagundu ahal izateko haren garapen pertsonal eta instituzionalean.

Uste dugu egokia dela udaleko hezitzaile taldean emakumezko zein gizonezkoak egotea, adingabe eta gazteentzat hezkuntzako erreferentzia ezberdinak baitira; baita profesionalentzat beraientzat ere, esku hartzeko irizpideen, lanaren antolakuntza eta bizipenen, eta abarren ikuspuntutik.

4.6. Kaleko hezitzaileak esku hartzeko dauden espazioak

Hezitzaileak esku hartzeko dauden espazioak definitzerakoan, kontuan hartu behar da esku hartzeko gune nagusia kalea dela.

Eta ez soilik arrisku egoeran dauden adingabe eta gazteak gizartekotzeko "hondar espazioa" izanik, haien bila dauden lekura –kalera– joan behar delako.

Kalea herritar guztien gizartekotze positiboaren espazio gisa ere defendatzen dugu, topaleku, harreman, adierazpen, mestizai, ikasteko leku, festa egiteko leku gisa.

Hori horrela ikusita, funtsezkoa da dauden gizarteko eta hezkuntzako baliabideek eta baliabide soziokulturalek kalean hainbat jarduera egitea, eta ez soilik arrisku egoeran dauden adingabe eta gazteekin harremanetan jartzeko bitarte gisa.

Kaleko hezitzailearen presentzia orokorrean, kalea ez diren baliabide komunitarioetako gune alternatiboetan, arrisku egoeran dauden adingabe eta gazteekin hasierako kontaktua

egiteko izan daiteke (eskoletako jantokietan presentzia izatea, esaterako), edo igarotzeko proiektuen barruan.

Lokalak jardueretarako erabiltzea

Inguru jakin batean lokalik ez badago, beharrezkoa izan daiteke hezitzaileek lokalen baten kudeaketa egitea ikuspegi normalizatutik, herritar guztiei zuzenduta alegia, eta egokitutik, epe laburrean udaleko Kultura edo Gazteria Departamentuan sartzeko. Aipatutakoak izan beharko luke, berez, udaleko Kultura edo Gazteria Departamentuak hasieratik hartu beharreko planteamendua.

Nolanahi ere, helburua ez da lokalak kudeatzea, adingabe eta gazteak hezkuntza ez formaleko guneetara igarotzea erraztea baizik, eta gune horiek haur eta gazte guztiei edo belaunaldi guztiei zuzendutakoak, eta arrisku egoeran dauden adingabe eta gazteen ezaugarriei egokituak izatea. Kontuan hartu behar da, gehienetan normalizatua (hau da, herritar guztiei zuzendutakoa dena) eta egokitua elkar baztertzen duten errealitateak direla.

Ildo horretan eta hezitzaileen txertatzea errazteari begira, hezitzaileen presentzia egon daiteke haiek kudeatzen ez dituzten lokaletan.

Hezitzaileek lokalen bat kudeatzen badute, aldi baterako izango da, eta kudeatze proiektuak berak aurreikusi eta ziurtatuko du kudeaketa boluntarioei edo profesionali geroago ematea.

Boluntarioen partaidetza gero eta txikiagoa da jardueran emandako urteei dagokienez; hori jakinda, boluntarioen errelebu sistemak aurreikusi beharko lirateke, eta kudeaketan ez baizik eta jardueretan bakarrik parte hartu nahi izatearen arazoaren aurrean, konponbideak aurkitu.

Beste arazo batzuk dira udaleko Kultura Departamentuak bideratzea kulturako kudeaketarantz, edo lokalik ez egotea; Gipuzkoan, hala ere, gazteentzako hornikuntza sarea nahiko garatuta dago, sorkuntza eta kultur sustapen proiektuak egiten ditu, eta bertan adingabe eta gazteek beraiek parte hartzen dute.

Hezitzaileek lokalak kudeatzeko beste arrazoi bat badago: maiz askotan prestatu behar izaten dira gazteak lokalak behar bezala erabil ditzaten, normalizatutako baliabideetara igaro aurretik.

Egokitutako baliabideak sortzeko beste aukera bat gazteen autokudeatze prozesuak bultzatzea da (17 urtetik aurrera).